



## INFORMAZIO OROKORRA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Ikaspostua eska dezakete 2012. eta 2013. urteetan jaiotako hurrek, baita 2014. urtean jaiotakoek ere, jaiotza aurreikusia badago 2014/2015 ikasturteko lehen eguna baino 16 aste lehenago (mugako eguna: 2014ko maiatzaren 12a).

**ARGIBIDEAK: 012 telefonoa eta [www.berriozar.es](http://www.berriozar.es)**

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: 2014ko MARTXOAREN 3tik 18ra**

**TOKIA: URTXINTXA BERRIOZARKO UDALEKO HAUR ESKOLA (Errota 6)**

**ORDUAK: 8:30etik 11:30era**

### AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. **BERRIOZARREN ERROLDATUTAKOEK: EZ DUTE AURKEZTU BEHAR** Nortasun Agiriaren fotokopiarik. **BERRIOZARREN ERROLDATUTA EZ DAUDENEK, BAI, AURKEZTU BEHAR DUTE** (N.A., pasaporte, atzerritarren bizileku-txartela edo horrelako identitate txartela).

2. Lan edo ikasketa egoera egiaztatzen duten agiriak

- Eskaera egiten den hilea barne duen lan bizitzaren agiririk **EZ DA AURKEZTU BEHAR, ESKAERA AGIRIAN BAIMENA EMATEKO LAUKITXOA MARKATZEN BADA**. Ikasketak eginez gero, matrikularen frogagiria eta kurtsoaren egutegia eta ordutegia.
- Ikasketak eginez gero, matrikularen frogagiria eta kurtsoaren egutegia eta ordutegia.
- Araubide berezietara lotuak dauden lan-egoerak justifikatzeko, aurreinskripzioa egiten den unean langilea araubide horretan alta emanda dagoela frogatzen duen agiria aurkeztuko da, baita enplegatzailearen zinpeko aitortpena ere, lanaldi-mota adierazita.
- Norberaren konturako lan egiten duen profesional liberalaren lan-egoera justifikatzeko, aurreinskripzioa egiten den unean dagokion mutualitatean alta emanda dagoela frogatzen duen agiria, lizentzia fiskala eta lanaldia adierazten duen zinpeko aitortpena aurkeztuko dira.
- Eszedentzia egoeran egonez gero, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu beharko da, eta idatziz zehaztu beharko da lanera itzultzeko aurreikusitako data. Kasu hauetan, behin lanean hasita, enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, lanean hasitako data egiaztatzeko.

3. Familiako kideen frogagiriak

- Familia liburuaren fotokopia (aita, ama eta seme-alaben orriak). Halakorik ez badago, antzeko agiri ofizial osorik.
- Familia ugariaren dokumentu ofizialaren fotokopia.
- Familia unitateko edozein kideren minusbalioa frogatzen duen agiria (ikastetxean onartua izateko eskatu den haurrena izan ezik) edo familia unitateko kideren bat Gizarte Segurantzako pentsioduna dela

frogatzen duen agiria, ezintasun iraunkor osoko, absolutuko edo baliaezintasun handiko pentsioa aitorturik badu.

- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.

#### 4. Errenta mailaren frogagiriak

- Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga. Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen azken aitortpenaren fotokopia. Errentaren Aitorpena egitera beharturik ez badaude, aurkeztu beharko dute errenta egitera beharturik ez daudela frogatzen duen Nafarroako Gobernuaren agiria, lan bizitzaren agiria eta 2012ko familia sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen diren dokumentuak, edo 2013koak, baldin eta onartua izateko prozesua 2014ko ekainaren 30a baino geroagokoa bada.

#### 5. Aitaren, amaren edo legezko tutoreen bizilekua edo lantokia eraginpeko eremu geografikoan dagoela frogatzen duen agiria.

- **Ez da errolatze ziurtagiririk aurkeztu beharko**, datu hori Udalak berak baieztatuko baitu. Edonola ere, errolatze-data 2014ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa izanen da.
- Ikaspostuaren eskatzaileak lan egiten badu eskatzen den Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxean bertan, hori horrelakoa dela frogatzen duen ikastetxeko zuzendaritzaren agiria.
- Aitaren, amaren edo legezko tutoreen lantokia zein den frogatzen duen agiria.
- Bizilekua aldatzea aurreikusi bada, etxebizitza ikasturtea hasi baino lehen emanen dela frogatzen duen agiria baloratu da. Kasu horretan, gaur egungo bizilekua zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizileku berria, berriz, baremazioa egiteko.

#### 6. Zuzenean sartzeko baldintza berezien gaineko agiriak

- Haurraren minusbalioa kalifikatzeko ziurtagiria eta/edo haurraren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztagiria eta/edo profesional batek egindako txostena, dituen ezaugarriengatik hezkuntza berezia behar duela dioena.

#### 7. Jaio gabeko haurrak.

- Aurreikusitako erditze-data zehazten duen ziurtagiria (mugako data: 2014ko maiatzaren 12a).

#### 8. Beste edozein gorabehera berezi baloratzeko frogagiriak

- Medikuaren, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatzeko.

#### 9.

- Haur eskolaren titularra den udalak, ahalmena izanen du beste herri batzuetako haurrak ez onartzeko, ez badute idatziz adierazten bizitokia duten herriko udala edo familia bera prest daudela udal titularrari dagokion moduluaren ehunekoa ordaintzeko.

## BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA

**2014ko MAIATZAREN 8an.** Tokiak: **012** telefonoa, [www.berriozar.es](http://www.berriozar.es), Berriozarko Udaleko Haur Eskola (Errota, 6) eta Berriozarko Udaletxeko iragarki-taula (Euskal Herria Plaza, 1).

## ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA

**2014ko MAIATZAREN 8tik 14ra (biak barne).** Lekua: **Berriozarko Udaleko Haur Eskola** (Errota, 6) Hautatze Batzordeari zuzenduko zaizkio eta behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikustea zergatik eskatzen den azalduko da.

## BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA

**2014ko MAIATZAREN 23an.** Tokiak: **012** telefonoa, [www.berriozar.es](http://www.berriozar.es), Berriozarko Udaleko Haur Eskola (Errota, 6) eta Berriozarko Udaletxeko iragarki-taula (Euskal Herria Plaza, 1).

## MATRIKULA EGITEA

**2014ko MAIATZAREN 23tik MAIATZAREN 30era.** Tokia: **Berriozarko Udaleko Haur Eskola (Errota, 6).** Orduak: **8:30etik 11:30era.**

Ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- Matrikularen kuota ordaindu izanaren ordainagiria. 50 euro sartu behar dira CaixaBankeko 2100 5184 57 21 00248980 kontuan.

**Kuota hori fidantza ere izanen da; beraz, sortutako kalteak ordaintzeko kasuetan, horrela erabili ahalko da.**

- Matrikula egiteko, beharrezkoa da haurrak 16 aste beteak izatea ikasturtea hasten denean.
- Haurra inskribatua agertzen den Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia. 2013-2014ko ikasturtean eskolan zeudenek ez dute agiri hori aurkeztu behar.
- Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen 2013ko pertsona fisikoen errentaren gaineko aitorenaren fotokopia. Aitorpena egin beharrik ez badute, salbuetsita daudela frogatzeko agiria aurkeztu beharko dute, Nafarroako Gobernuak sinatua, eta horrekin batera, lan bizitzaren txostena eta familiak 2013. urtean izan dituen diru-sarrerak egiaztatzeke agiriak. Agiri hori aurkezteko eguna 2014ko ekainaren 30era arte atzeratzen ahalko da.

**Ez dute agiri hori aurkeztu beharko gehienezko kuotari dagokion errenta edo altuagoa daukaten pertsonak.**

- Aitorpena egin beharrik ez badute, salbuetsita daudela frogatzeko agiria aurkeztu beharko dute, Nafarroako Gobernuak sinatua, eta horrekin batera, lan bizitzaren txostena eta familiak 2013. urtean izan dituen diru-sarrerak egiaztatzeke agiriak.
- Ordainagiriak helbideratzeko, banku entitatearen libretaren orriaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituen. Aurreko urtean eskolan egondakoek agiri hau aurkeztuko dute, soilik, kontu zenbakia aldatu badute.
- Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.

## **OHARRAK**

- Ezarritako epean matrikula egin ezean, beste esleipen bat eginen da itxaron-zerrendako ordenari jarraituz.
- Itxaron-zerrendaren hurrenkera puntuazioaren eta adin-taldearen arabera izanen da, aukeratutako hizkuntzari begiratu gabe. Horren arabera eskainiko dira libre geratutako ikaspostuak.
- Eskaturiko egiaztagiriak aurkeztu ezean, zero puntu eskuratuko da dagokion baremo-atalean.
- Aurkeztutako datuetan edo agirietan gezurrik adierazi dela frogatuz gero, emandako ikaspostua galduko da.
- Hautatze Batzordeak edozein unetan eskatu ahal du egiaztagiri gehiago aurkezteko, alegatzen diren egoerak argitzeko.
- Aurkeztutako eskaerei zenbaki bat emanen zaie, eta hori izanen da behin-behineko eta behin-betiko zerrendetan argitaratuko dena.
- Matrikula egiteak esleitutako hizkuntzarekin eta jardunaldiarekin bat egitea ekarriko du.
- Itxarote-zerrendan dauden haurrak ikastetxean matrikulatzen ahalko dira ikaspostuak hutsik gelditzen direnean, betiere 16 aste beteak badituzte. Matrikula egiteko zerrendako puntuazioari jarraikiko zaio hertsiki, 2014-2015 ikasturterako ikaspostu hutsen zerrenda argitaratu arte.
- Eskabide berriak matrikulazio epea bukatu ondoren aurkezten ahalko dira, horretarako ezarritako epe arruntetik kanpo, 2014-2015 ikasturterako bete beharreko ikaspostuak argitaratu arte, betiere haurrak 16 aste beteak baditu.
- Eskaera horiek kontuan hartuko dira ikasposturen bat hutsik gelditzen bada, onarpen prozesu arruntean sortutako itxarote-zerrenda agortu ondoren. Ikaspostuak esleitzeko eskabidea aurkezteko egunari jarraituko zaio, betiere haurrak 16 aste beteak baditu.

## TARIFAK

Bigarren oinarrian ezarritako tarifak murriztuko dira familia unitatekideen per capita errentaren arabera. Hortaz, 2014/2015 ikasturtean ordaindu beharreko tarifak taula honetan jasotakoak izanen dira:

Per capita errentaren tarteak		Eskolatzea			Jantokia	Eskolatzea + jantokia		
		Eskola-ordutegi mota				Eskola-ordutegi mota		
Zenbateko honetatik	Zenbateko honetara	Osoa (7 h)	Murriztua (6 h)	Batez bestekoa (4 h)		Osoa (7 h)	Murriztua (6 h)	Batez bestekoa (4 h)
Handiagoa	15.000	244,00	227,00	170,00	95,00	335,00	322,00	265,00
12.400,01	15.000	217,00	204,00	153,00	95,00	312,00	299,00	248,00
10.700,01	12.400	180,00	169,00	125,00	95,00	275,00	264,00	220,00
9.300,01	10.700	150,00	139,00	106,00	95,00	245,00	234,00	201,00
7.980,01	9.300	112,00	107,00	78,00	95,00	207,00	202,00	173,00
6.650,01	7.980	96,00	87,00	66,00	84,00	180,00	171,00	150,00
5.500,01	6.650	69,00	66,00	50,00	84,00	153,00	150,00	134,00
4.500,01	5.500	55,00	52,00	39,00	84,00	139,00	136,00	123,00
Berdina edo txikiagoa	4.500	41,00	39,00	29,00	84,00	125,00	123,00	113,00

- Eskolan bi seme-alaba dauzkaten familiek %50 merkeago izan ahalko dute bigarren seme-alabarengatik ordaindutako kuota; muga jardunaldiaren arabera ezarritako tarifarik txikiena izanen da.
- Eskolan hiru seme-alaba edo gehiago dauzkaten familiek aurreko puntuan azaldutako murrizketa izanen dute bigarren seme-alabarengatik, eta hirugarren eta hurrengo kasuan dagokien jardunaldian ezarritako tarifarik txikiena ordainduko dute.